

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarreko idazkariaren lanpostua betetzea, zeina Estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioentzat erreserbatuta baitago

Gobernu Batzarreko idazkariaren lanpostua bete beharra dago, haren titularrak benetan bete teko ez duelako.

Estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 48. artikulua eta hurrengoak ikusirik, hau

EBATZI DUT

Lehena. Batzarreko idazkariaren lanpostua betetzeko Estaturako gaikuntza duen toki-administraziooko funtzionario baten izendapena proposatzeko prozedura abiaraztea, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren bat baliatuz eta horietan adierazten den lehentasunarekin.

Bigarrena. 5 egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkez ditzaten, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki-administraziooko funtzionario bat izendatu beharko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala eta kategoria berekoek.

Egoera bakoitzaren barruan, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaur-laritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorra hartuko da aintzat lehentasuna ezartzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduetako edozein baliatuz aurkeztu ahalko da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-ordena ezarri ondoren, eta Vitoria-Gasteizko Udalak hurrenkera horren arabera izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dagoen toki-erakundearen aldeko txostena aurkezteko, aipatutako artikuluetan xedatutakoari jarraituz, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak aurkezteko ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, Estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo osoko bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena:

Lan-harremana: Estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: Estaturako gaikuntza.

Azpieskala: Idazkaritza. Lehen klasea.

Azpitaldea: A1.

Destino-osagarria: 30.

Berariazko osagarria: 5.

Hizkuntza-eskakizuna: 4.a (derrigortasun data: 1994ko abenduaren 31).

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 24an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCIA

ERANSKINA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:; jakinarazpenetarako helbidea:; herria.....; telefono-zenbakia:), zeinak Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa baita, azpieskalan, eta gaur egun lanpostua betetzen ari baita Toki-erakundearen, (e) k egindako izendapenaren bidez, datan horren jabetza hartu zuelarik (edo egoera hauetako batean baitago: zerbitzu aktibora itzultzea –lankidetzalanpostuak kentzea– izendapen askeko lanpostuak uztea), hau

Adierazten du

Jakin duela Vitoria-Gasteizko Udaleko Batzarreko idazkariaren lanpostua hutsik dagoela edo titularrak ez duela benetan betetzen, eta hori behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeko aukera dagoela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, indarrean dagoen legeriaren arabera; beraz, dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

Eskatzen du

Parte hartu ahal izatea Vitoria-Gasteizko Udaleko Batzarreko idazkariaren lanpostua behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez (ez dagokiona ezabatu) betetzeko prozeduran.

Honekin batera agiri hauek aurkezten ditu:

* NANaren fotokopia.

* Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

* Lanpostua metaketaren bidez eskatuz gero, dagoeneko metaketaren bidezko izendapenik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

.....(e)n, 20.....(e)koren(e)an.

Sinadura:.....